



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Udaleko Administrazio Orokorreko Teknikari lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, Administrazio Orokorreko teknikari lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia.

2024ko azaroaren 22ko 6273 Alkatetzaren Dekretu bidez honakoa xedatu da:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko teknikari lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak (I. Eranskina) eta deialdia onartzea.

Bermeon, 2024ko azaroaren 22an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly



ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Lan poltsa

Bermeoko Udalean egon daitezken hutsune eta bestelako bitarteko eta premiazko beharizanak estali ahal izateko, deialdia egiten da Administrazio Orokorreko Teknikariaren (A Taldea, A-1 Azpitaldeko titulazioa) Lan Poltsa Eratzeko oposizioaren bidez eta sarrera libreko sistemaz.

Plaza Administrazio Orokorreko Eskalakoa eta Teknikariaren azpitaldekoa da.

Misioa orokorrean izango da Bermeoko Udalean aholkularitza juridikoa ematea zein langileria, hirigintza, kontratazioa eta ondarearen izapidetza burutzea. Konkretuki, lanpostu konkretuari dagokion lanpostuen zerrendan jasotako gainerako funtzioak burutu beharko dira.

Lan poltsa Bermeoko Udaleko Lan poltsak kudeatzeko araudiak dioenaren arabera kudeatuko da.

2. Betebehar zehatzak

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.

3. Lizentziatu edo graduatuaren titulu akademiko ofiziala edukitzea arlo hauetako batean: Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian, Aktuariotza eta Finantza Zientzietan edo balioekidean.

4. Lan poltsan sartu ahal izateko 4. Hizkuntza Eskakizuna izan beharko da.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilerara arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua arabera, lan poltsa eratuko da 3. Hizkuntza Eskakizuna daukaten hautagaiekin ere, 7. oinarrian jasotako baldintzetan.

Hizkuntza Eskakizunaren baldintza hau azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak (Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak balioekidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena) ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da

Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsiko dira.

5. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

6. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Baldintza hori betetzen dela Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.

7. Diziplinako espediente bidez edozein Administrazio Publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetan aritzeko.

3. Azterketa-eskubideak

20,00 eurokoak izango dira, Agiriak emateagatik ordaindu beharreko arautzen duen udal Ordenantza fiskalaren arabera.



Lanpostuetarako deialdietan azterketara aurkeztu ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diren guztiz zehaztuta dagoen ezker eta izena ematea tasa sortzen den ezker, aurkezten denak betetzen dituela ulertu behar da eta izena ematean tasa sortzen den ezker, Erregistro Orokorrean eskaria aurkezten den unean tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontutan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da hautagaia.

Behin izena emanda eta ordainduta, deialdiaren baldintzak betetzen ez dituelako azterketara ezin badu aurkeztu edo aurkeztera uko egiten badu hautagaiak, ordaindutako tasa ez da itzuliko.

Kopuru horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Ordainketa-pasabidearen bitartez, Bermeoko Udalaren web orriko lotura honetan: http://bermeo.eus/ordainketak_online.html
- Txartelaz, arreta zuzeneko berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.
- Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
- Banketxeetan.

4. Eskabideak

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eskari ofiziala helbide honetan lor daiteke:

- Euskeraz:

http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc_bermeo/datu_orokorrak/24_E.10-23_OPOSAKETAK.pdf

- Gazteleraz:

http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc_bermeo/Inprimakiak/24_G.10-23_OPOSAKETAK.pdf

Eskariak aurkezteko bideak:

- Egoitza elektronikoa: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>
- Arreta zuzeneko berhaz bulegoa: Ertzilla, 6-8.
- 39/2015 Legeko 16.4 artikulua zehaztutako bideak.

Eskabidea, titulazioa, NAN agiria, egiaztatutako Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta tasak ordaindu izanaren egiaztagiria bost (7) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, zapatuak, domekak eta jaiegunak ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

5. Izangaiak onartzea

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta udalaren iragarki oholean ipiniko da. Modu berean, adieraziko da 5 egun balioduneko epean hautagaiak egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituztela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta erakundearen iragarki-oholean ipiniko da. Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez badago.

3. Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua jarri daiteke alkatearen aurrean, hilabeteko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.



6. Epaimahaia

Hautaketa-prozesuko epaimahaia xedapen hauetako artikuluetan ezarritakoaren arabera eratuko da: Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuko 4. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 81. artikulua eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 21.1.b. artikulua.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren araberako kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Epaimahaia osatuko dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu, besteak beste, oposizio fasean aurreikusten diren ariketen hurrenkera. Epaimahaiaren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaikideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

7. Hautaketa-prozedura

Lan poltsa eratuko duten hautagaiak oposizioaren bidez eta txanda irekian aukeratuko dira. Oposizio-fasean ariketa bakarra egingo da.

Oposaketa fasea

Oposizio-fasean ariketa bakarra egingo da, derrigorrezkoa eta baztertzaila izango dena.

- Ariketa bakarra (teorikoa): Epaimahaiak ezarritako gehienezko denboran, oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren edukiei buruzko erantzun anitzeko galderetegiari erantzutea. Epaimahaiak zehaztuko du galdera kopurua, erantzun anitz kopurua eta ariketa egiteko denbora.

10 punturekin baloratuko da frogua hau.

- Azterketa deia:

Azterketatarako deialdiak, Bermeoko Udalaren web gunean ipintzeaz gain, posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaizkie hautagaiak, eskaera-orrian zehaztutako helbidera elektronikora egingo dena.

8. Oposizio fasearen kalifikazioa eta lan poltsaren hurrenkera finkatzea

Lan poltsa eratzeko hautaketa-prozesua osatzen duen ariketa eginda eta zuzenketak burututa, epaimahaiak behin behineko kalifikazioa eta hurrenkera argitaratuko du Bermeoko Udalaren web gunean.

Oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioen ondoriozko zehaztuko da hurrenkera, baina lehentasuna izango dute Oposizio-fasea gainditu eta 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenek. Jarraian, Oposizio-fasea gainditu eta 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenak joango dira.

Behin-behineko kalifikazio eta hurrenkerearen aurka dagozkion alegazio eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira bost (5) laneguneko epean. Epe horretan, alegazio



edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko proposamena behin betikotzat joko da.

Ostera, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten bada, horiek ebatziko dira eta epaimahaiak behin betiko kalifikazioak eta behin betiko hurrenkera onartuko du eta argitaratuko du Bermeoko Udalaren web gunean. Halaber, Bermeoko Udaleko web gunean argitaratuko da lan poltsa eratzeko alkatetzaren ebazpena.

9. Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1988 Legearen 46. artikulua araber, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Alkateari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bermeoko Udaleko webgunean argitaratzen denean hasiko da.

**ERANSKINA****GAIAK**

1. Genero politikak. Emakumearen sustapena. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegitutzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
2. Datu pertsonalen babesa. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako.
3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
4. Administratua eta herritarra. Kontzeptua eta motak. Administruaren eta herritarren ahalmena eta arrazoi aldatzaileak. Herritarren Estatutua: eskubide subjektiboak eta interes legitimoa. Kontzeptu bien arteko ezberdintasunak. Herritarren betebeharrak. Herritarren lankidetzeta eta parte-hartzea Administrazioan.
5. Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintzen motak. Administrazio-egintzaren elementuak.
6. Prozeduraren denborazko dimentsioak. Agiriak jasotzea eta erregistratzea (Erregistro elektronikoa). Interesduna eta ordezkariak. Komunikazioak eta jakinarazpenak.
7. Administrazio-prozedura erkidearen faseak. Administrazioaren isiltasuna. Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta baldintzak. Betejarazpena eta etendura. Administrazio-egintzak betejaraztea.
8. Administrazio-egintzen baliogabetasunaren teoria. Egintza deusezak eta deuseztagarriak. Administrazio-egintza baliokotzea. Administrazioaren kabuz berrikustea.
9. Administrazio-errekurtsoak: Kontzeptua. Printzipio orokorrak eta motak. Araubide juridikoa. Administrazio-errekurtsoen ordezkari prozedurak: kontziliazioa, bitartekaritzeta arbitrajea.
10. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Erregulazioa. Aldeak. Aurka egin daitezkeen egintzak. Prozedura orokorra. Epaia eta epaiaren betejarazpena. Prozedura bereziak.
11. Administrazio-prozeduraren berezitasunak toki entitateetan. Toki entitateen egintzen berraztertzea eta errebokatzea. Espedienteen izapidetzeta. Interesdunak. Abstenitze eta errekusazioa. Tokiko egintzen kontrako administrazio eta auzi bidezko errekurtsoa.
12. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea: Esparru objektiboa eta esparru subjektiboa. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.
13. Aldeak kontratuan. Kontratazio-organoa, esparru lokalean dituen eskumenak, kontratazio-mahaia eta kontratugilearen profila. Enpresaburuak kontratatzeke dituen ahalmena, kaudimena eta debekuak.
14. Administrazio publikoen kontratuak prestatzeko eta adjudikatzeko arau orokorrak. Kontratazioaren arloko errekurtso berezia.
15. Kontratuak toki administrazioan. Kontratatzeko ahalmenak toki entitateetan. Toki entitateen arau bereziak kontratazio publikoan.
16. Administrazio-egintzaren motak. Sustapena eta horretarako baliabideak. Dirulaguntzen azterketa berezia.
17. Administrazio publikoen zigortzeko ahalmenaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek zigortzeko duten ahalmena. Toki erakundeek zigortzeko ahalmena.
18. Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa eta administrazioaren prestazioak. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.
19. Administrazioaren erantzukizuna. Bilakaera eta gaur egungo araubidea. Ordain daitezkeen kalteak. Administrazioaren ekintza eta prozedura, erantzukizunari dagokionez.



20. Enplegatu publikoak. Kontzeptua eta motak. Funtzio publikoaren egitura. Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu bateratua onartzen duen 5/2015 EDL eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legea. Edukiaren eta ideia orokorra. Arau bien arteko ezberdintasun nagusiak. Bermeoko Udalaren antolaketa eta organigrama.
21. Funtzionarioen diziplina-araubidea. Enplegatu publikoen erantzukizun zibila eta penala. Funtzionarioen delituak eta Administrazioa Publikoaren kontrako delituak.
22. Nazio gaiak duten funtzionarioen erregimen juridikoa. Idazkaritza, kontu-hartzailetza eta diruzaintzako lanpostuak. Klasifikazioa eta lanpostuen funtzioak.
23. Lan egiteko eskubidea. Izaera eta ezaugarriak. Lan arloko arautegiaren iturriak: konstituzio-printzipioak, nazioarteko arautegia eta estatuko legedia. Lan hitzarmenak kolektiboak.
24. Antolaketa administratiboa. Antolatzeko ahalmena. Organo administratiboak. Kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoen garrantzi berezia.
25. Antolaketa administratiboaren printzipioak. Eskumena, hierarkia eta koordinazioa. Deszentralizazioa. Autonomia eta tutoretza.
26. Tokiko hauteskunde sistema. Zinegotziak eta alkateak aukeratzea. Zentsura mozioa eta konfiantza arazoa tokiko esparruan. Hauteskunde-auzietako errekurtsioa. Tokiko korporazioetako hautetsien estatutua.
27. Udalaren eskumenak: zehazte sistema. Berezko eskumenak, eskumen partekatutako eta eskuordetuak. Gutxieneko zerbitzuak.
28. Toki erakundeen kide anitzeko organoen bileren erregimena eta akordioak.
29. Tokiko erakundeen ordenantzak eta araudiak. Motak. Horiek lantzeko eta onartzeko jardunbideak.
30. Toki-erakundeen ondasunak. Izaera juridikoa, araubide juridikoa eta emateko prozedura. Kalifikazio juridikoa aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzeko araubidea. Ondasunen zerrenda.
31. Zerbitzu publikoa tokiko esparruan. Kudeaketa moduak. Emakidaren trataera berezia.
32. Gardentasuna. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen xedepena gardentasunari dagokionean.
33. Parte hartzea. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen xedepena parte hartzeari dagokionean.
34. Lurzoruaren sailkapena: motak eta mailak. Kalifikazioa. Lurzoruaren jabetzaren erregimena.
35. Hirigintza antolaketa eta lurraldearen antolaketarekin daukan lotura. Hirigintzako planeamendua. Plan-motak eta tramitazioa. Hiri Antolaketarako Plan Orokorra. Planeamendu orokorraren bateragarritasuna. Sektorizazio planak.
36. Antolaketa xehakaturia. Plan bereziak. Plan partzialak. Beste baliabide batzuk (xehetasun-azterlanak, udal ordenantzak eta katalogoak).
37. Hirigintzaren arloko legaltasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza arloko legaltasunaren bermea eta babesa. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintzaren arloko arau-hausteak eta zigorrak.
38. Aurrekontua: kontzeptua, izaera eta motak. Aurrekontuaren araubide juridikoa. Tokiko aurrekontuak. Kontabilitatea eta kontuak.
39. Tokiko ogasunak: diru-sarreraren sailkapena. Ordenantza fiskalak. Tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak. Erreferentzia berezia tokiko arloari.